

### Autoebaluaketa III ZATIA (9-13 ikasgaiak)

- 1.- Antiinflamatorio ez esteroideoen ekintza mekanismoaren gainean, zein da zuzena?:
  - a) Farmako guztiek afinitate berdinarekin inhibitzen dituzte COX1 eta COX2 entzimak.
  - b) Hantura bitartekarien adierazpen genetikoa aldatzen dute.
  - c) Hartzaile opioideetan eragiten dute.
  - d) **Batzuek COX2 selektiboki inhibitzen dute.**
  - e) Parazetamolak plaketetako COX1 inhibitzen du.
  
- 2.- Ondoko farmako antiinflamatorioetatik, zeinek dauka tronboenbolismoa sortzeko arriskurik handiena?:
  - a) Parazetamola
  - b) **Zelekoxib, COX2 inhibitzaile selektiboa**
  - c) Azido azetilsalizilikoa
  - d) Ibuprofenoa
  - e) Diklofenako
  
- 3.-Ondoko aukeretatik, zein ez dagokio AIEE taldeari?:
  - a) Aspirinak ahozko antikoagulatzailearekin batera erabiltzen denean odol-ateratze denbora luzatzen du.
  - b) **Eragin diuretikoak handitzen du**
  - c) COX inhibitzen du
  - d) Min arin-moderatuak arintzeko erabilgarriak dira
  - e) Parazetamolak ez dauka eragin antiinflamatoriorik
  
- 4.- Glukokortikoideen gainean, zein da faltsua?:
  - a) Transplante errefusak ekiditzeko erabiltzen dira
  - b) **Oso analgesiko eraginkorrak dira**
  - c) Hartzaile nuklearretan eragiten dute
  - d) Kronikoki erabilia Cushing sindromea sortzen dute
  - e) Kronikoki erabilia kortikoideen barneko jariaketa inhibitzen dute
  
- 5.- Glukokortikoideen erabilgarritasun terapeutikoen artean, zein ez dago?:
  - a) Shock anafilaktikoa
  - b) **Osteoporosia**
  - c) Arthritis erreumatoide
  - d) Asma
  - e) Belauneko artrosia (infiltrazioak)
  
- 6.- Lidokainari dagokionez, zein da zuzena?:
  - a) **Anestesiko lokala da**
  - b) Erbilgarritasun terapeutiko nagusia minbiziak sorturiko mina da
  - c) Boltai-menpekorreko potasio erretenak blokeatzen ditu.
  - d) Aho bidez hartzen da
  - e) Urdail-hesteko ultzerak sortzen ditu

7.- Ondoko farmakoetatik, zein erabiltzen da gehienetan eztularen kontra?

- a) Kodeina
- b) Morfina
- c) Naltrexona
- d) Adrenalina
- e) Naloxona

8.- Metadonari dagonionez, zein da zuzena?

- a) Agonista adrenergikoa da.
- b) Analgesia sortzen du.
- c) GABA<sub>A</sub> hartzaillean eragiten du
- d) Opiazeozko gaindosietan erabiltzen da.
- e) Antagonista opioide da.

9.- Zer farmakoa erabiltzen da opioide-gaindosietan?:

- a) Naloxona
- b) Heroina
- c) Fentaniloa
- d) Metadona
- e) Kodeina

10.- Buprenorfinaren ezaugarri farmakologikoen artean, ondoko bat dago:

- a) Morfinaren eragin analgesiko baino laburragoa dauka
- b) Morfina baino eraginkorragoa da mina arintzen
- c) Morfina baino liposolugarriagoa denez txaplaten bidez ematen da.
- d) Antagonista opioide da.
- e) Idorreriaren kontra erabiltzen da.